

Lezoko Andreone udal liburutegiak lehengo urtean 236 bazkide gehiago lortu zituen

2006an zehar, 1.400 liburu berri sartu ziren erakundearen memoriak adierazten duenez

Lezo. Lezoko udal liburutegiak guztira 236 bazkide berri jaso zituen 2006an zehar. Halaber, erakundearen memoriak adierazten duen bezala, titulu kopuruek ere gora egin dute: 1.491 liburu berri, 24 CD, 186 bideo eta 18 ordenagailu-fitxategi sartu ziren. Bestalde, 46 titulu bakarrik atera ziren katalogotik.

Udalak 15.000 euroko partida bat eman zuen liburuen erosketa finantzatzeko, eta horri CD eta bideoak erosteko emandako beste 4.000 euro erantsi behar zaizkio.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, 4.037,39 euro eman zituen liburuak berritzeko daukan programaren barruan, horiek Udalak emandako kopuruaren barne azaltzen direlarik.

Beste zenbait erakunde eta partikularrek ere euren laguntza eman dute udal liburutegiko bildumako titulu-kopurua areagotzeko, eta horien artean daude Estatuko Kultura Ministeritza, Eusko Jaurlari-tza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa, eta herriko biztanleak. Honi dagokionez, Agustina Pontestak eginiko Orixeren Lezoko Gurutze Doi-tsuari euskal-ereserkia liburuaren ekarpena nabarmentzen da, 1919. urtean argitaratua. Gainera, zortzi egunkarietarako harpidetza ordaindu du Udalak, eta erakunde askok, berriz, udal liburutegiak erabiltzaileen eskura jar-tzen dituen aldizkari lortzeko lagundu dute.

Ekimen hauei esker, udal liburutegiak 8.050 mailegu kudeatu ditu orotara, heldu, gazte eta haur literaturako 5.016 libururen artean batez ere banatzen direlarik. >a.m.